

## **DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK, JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ERABILTZEN DIREN ERAIKINETAKO FATXADAK BIRGAITZEKO; DIRULAGUNTZAK BANAKAKO EBALUAZIO-ARAUBIDEZ ETA ZUZENEAN EMANGO DIRA.**

### **1. Araudi erregulatzaileria.**

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak emateko araubidea hau da:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Eibarko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udalbatzarrak 2012ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartu eta 2013ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zena.
- Dirulaguntza hau arautzen duten oinarriak, deialdi honetan bertan daudenak.

### **2. Dirulaguntzaren xedea.**

Oinarri hauen xedea da Eibarko Udalak nagusiki jarduera ekonomikoetarako erabiltzen diren eraikinetako fatxadak birgaitzeko obrak egiteko eman beharreko dirulaguntzak arautzea; dirulaguntza horiek banakako ebaluazio-araubidez eta zuzenean emango dira.

Eskaeraren urtean edo aurrekoan amaitutako obrak sartzen dira, baldin eta erabilera nagusia jarduera ekonomikoa duen eraikin baten fatxada edo fatxadak konpontzea, berritzea edo fatxadak lehengoratzeta izan badute xede, betiere konposizio-unitatea aldatzeke eta eraikinaren egiturari ezertan ukitzeke. Diruz lagunduko dira eraikuntza-konponbideen aldaketa dakarten zaharberitze-obrak, baldin eta, aldi berean, fatxadaren jatorrizko baldintzak hobetzea badakarte.

Obra hauek dira sartzen direnak:

- Fatxadaren akaberako elementuak konpontzea, berritzea edo ordezkatzeta, esate baterako, emokadura eta margotze-lanak.
- Zura, balkoiak, begiratokiak, fatxadaren lerrotik kanpo dauden elementuak eta erlaitzak aldatzea. Elementu guztiak batera aldatu behar dira. Erabiliko diren materialak eta diseinua lehendik daudenen antzekoak izango dira .
- Fatxada isolatzeko obrak, betiere eraberritu ondoren gutxienez C energia-ziurtagiria lortzen bada, edo obraren osteko energia-ziurtagiria bi mailatan hobetzen bada hasierakoarekin alderatuta, eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozeduraren arabera.

### **3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:**

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko da jarduera ekonomikoetarako eraikinetako fatxadak birgaitzeko obrak gauzatzeari dagokiona. Obrak 2019 eta 2020 urteetan egin beharko dira.

#### **4. Onuradunek dirulaguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak:**

Dirulaguntza hau jaso ahal izango dute fatxadak zaharberritzeko obrak egiten dituzten jarduera ekonomikoetarako eraikinaren jabeen erkidegoek edo jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek, betiere DLOren 13. artikulua 2. eta 3. zenbakietako debekuen eraginpean ez badaude.

Eraikinaren jabea pertsona fisikoa bada, Eibarren erroldatuta egon beharko du. Eraikinaren jabeak pertsona bat baino gehiago badira, haietako batek, gutxienez, Eibarren erroldatuta egon beharko du. Eraikinaren jabea pertsona juridikoa bada, egoitza soziala Eibarren izan beharko du.

Eraikinak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Azalera erabilgarri osoaren bi heren, gutxienez, jarduera ekonomikora bideratuta egotea, edo, erabiltzen ez den eraikinaren kasuan, jarduera ekonomikoa, gutxienez adierazitako proportzioan, egon izana.

b) Hogeita hamar urtetik gorako eraikina izatea.

c) Hirigintzaren ikuspegitik egokitasuna gordetzea eta fatxada birgaitzeko udal lizentzia eskuratzeko inongo mugarik ez izatea.

d) Fatxadako elementu guztiei tratamendu bateratu bat ematea (leihoak, estaldurak, itxiturak...). Ez da dirulaguntzarik emango baldin eta aipatutako elementuren bat lizentziarik gabe aldatu bada eta fatxadako gainerako elementuetatik desberdina bada, salbu eta lizentzia eskatzeko aurkeztutako proiektuan elementuok aldatzeko eta fatxadaren baldintza estetikoak bateratzeko asmoa islatzen bada.

e) Ez edukitzea fatxadetan baimenik ez duen instalaziorik, hau da: antenak, erroteruak eta bestelakoak.

f) Ez edukitzea fatxadetan amiantotik eratorritako materialik, salbu eta lizentzia eskatzeko aurkeztutako proiektuan horiek kentzea eta zabortege baimenduan uztea aurreikusten bada.

g) Eraikina ez egotea aurri-egoeran, neurri baten eraitsia edo barrutik hustua.

h) Azken 10 urteetan obra berengatik beste udal dirulaguntzarik jaso ez izana.

i) Egindako obrek udal teknikarien aldeko txostena izan beharko dute. Dirulaguntza ukatu egingo da, egindako obra emandako lizentziarekin ez datorrela bat ikusiz gero eta legezatzeko modukoa ez bada.

#### **5. Dirulaguntzak zein aurrekontu-kredituri egozten zaizkion eta, eskuragarri diren kredituen barruan, deialdi honetako gehieneko dirulaguntzen zenbateko osoa, edo, hori ezean, diru-laguntzen kopuru zenbatetsia.**

Dirulaguntza hauen finantzazioa, 30.000 euroko udal-ekarpen ekonomiko baten kontura egingo da, aurtengo ekitaldiko aurrekontuko 1.0200.771.03.152.20 partidan jaso.

Aurrekontu-kreditua agortu delako eskabideak erantzuteke geratzen badira, organo eskudunak hala erabakiz gero, dirulaguntzok egotzi zaizkion aurrekontuaren partida gehitu egin daiteke, ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko.

## **6. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.**

Dirulaguntzen eskabideak interesdunek izenpetuko dituzte zuzenean, edo zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez ordezkariak dutela egiaztatzen duten pertsonak.

Dirulaguntzak lortzeko eskaerak eta erantsitako dokumentazioa aurkezteko epea —deia egiten duen organoari zuzenduta eta onuradunak edo haren ordezkari legez diharduenak sinatuta— 2020ko azaroaren 20an amaituko da (egun hori barne).

Eskabideak toki hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira:

- **Aurrez aurre PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa**, (Udaletxea, beheko solairua, Untzaga plaza 1).
- **Elektronikoki, udal webgunearen bidez**: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus). Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)
- **Administrazio Publikoetako erregistroetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. Artikuluan adieraziak**. Posta-bulegoetan aurkezten diren eskariak Eibarko Udalarari zuzenduko zaizkio, kartazal irekian, Posta-bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskariak aurkezteko epearen barruan ziurtatuak izan baino lehen. Horixe da modu bakarra eskariak Postetxearen bulegoan entregatu ziren egun berberean Udal Erregistroan sartu zirela erakusteko.

## **7. Dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak eta argibideak.**

Honako dokumentazio hau izan behar du dirulaguntza eskuratzeko eskaerak:

- a) Jarduera ekonomikoetarako eraikinen fatxadak birgaitzeko obrak egiteko dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta; eskabide-eredua PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan eta udalaren webgunean ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)) eskuratu ahal izango da.
- b) Nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak:
  - Pertsona indibidualak, NANA edo agiri baliokidea.
  - Pertsona juridiko direnek: eskritura edo entitatearen eraketa jasotzen duten dokumentuak eta hura arautzen duten Estatutuak; azken horiek, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuak.
- c) Legezko ordezkariaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkariaren egiaztariak. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...).
- d) Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria, eskatzailearen nortasunarekin bat etorri behar duena. Ondoko agiri hauetako edozein izango da

baliozkoa: Banku-laburpena; libreta; banketxeak emandako ziurtagiria edo "Kontuaren titularra" inprimakia (eskuragarri dago PEGORAn edo udal webgunean, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), behar bezala beteta eta banketxeak zigilatuta.

- e) Higiezinaren titularra edo titularrak nor diren adierazten duen agiria. Eraikinak jabe bat baino gehiago izanez gero, titular horien adostasun-akordioa, diru-laguntzaren xede diren obrak gauzatzeari buruzkoa (eredua eskuragarri dago PEGORAn eta udalaren webgunean: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)).
- f) Eskumena duen Ogasunak emandako egiaztagiria, eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- g) Dirulaguntzaren eskabidean Udalari ez bazaio baimenik eman eskatzailea Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da.
- h) Fatxaden amaierako egoeraren argazkiak, obrak egin ondoren.
- i) Egindako obren fakturak.
- j) Beste erakunde batzuei eskatu bazaizkie dirulaguntzak, erakunde, instituzio... horiei egindako dirulaguntza-eskaeren zerrenda, edo bestela, dagoeneko jaso diren dirulaguntzena, zenbatekoa eta helburua zehaztuz.
- k) Dirulaguntza birgaikuntza energetikoagatik eskatu bada, obrak egin aurretik eta ondoren eraikinak duen energia-eraginkortasunari buruzko ziurtagiria. Isolamendu-obrei dagokien zenbatekoa aitortzeko, gutxienez C ziurtagiri energetikoa lortu beharko da, edo obraren osteko ziurtagiri energetikoa bi mailatan hobetu, hasierakoarekin alderatuta, eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozeduraren arabera.

Ez da beharrezkoa izango Udalaren eskuetan dagoen dokumentazioa berriro aurkeztea, aurretik beste administrazio-espeditente batzuetarako aurkeztu izan bada.

## **8. Akatsak zuzentzea eta aurre-ebaluazioa.**

Eskabideak deialdi honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta aurreko paragrafoan aipatzen den dokumentazioa aurkezten dela egiaztatzeko eskumena organo instruktoeari dagokio, eta hark zuzenketa eskatu ahal izango du, DLOren 23.5 artikularen arabera. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, edo hamar laneguneko gehieneko epe luzaezinaren barruan akatsak zuzendu ezean, eskabidean atzera egin dela joko da.

## **9. Dirulaguntzak emateko prozedura.**

Dirulaguntza emateko prozedura zuzenean ematekoa izango da, banakako ebaluazioaren araubideari jarraituz, Eibarko Udalaren Dirulaguntzetarako Ordenantza Orokorraren 26. artikulua aurreikusten duen eran.

Dirulaguntzak emateko araubide honetan, aurrekontu-kreditua agortu eta eskabideak erantzuteke geratzen badira, organo eskudunak hala erabakiz gero, ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko, dirulaguntzak egozten zaizkion aurrekontuaren partida gehitu egin

daiteke.

Edozelan ere, deialdi batean krediturik ez egoteagatik ebatzi ezin izan diren dirulaguntza eskabideak hurrengo deialdian sar daitezke; kasu horretan lehentasuna edukiko lukete tramitatzerakoan.

#### **10. Dirulaguntza emateko irizpideak.**

Dirulaguntzak emateko prozedura honetan, espedienteak aurkeztu ahala tramititzen eta ebazten joango dira (deialdian aurreikusitako epearen barruan) horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean; dirulaguntza eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaie eta bakoitzari emango zaion zenbatekoa oinarri hauen 11. artikulua aitutzen dituen irizpideak aplikatuz ateratzen dena izango da.

#### **11. Dirulaguntza bakoitzari dagokion zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak.**

Dirulaguntza “oroharreko prezioan” emango da, eta gehieneko zenbatekoa ondoko hauetatik txikiena izango da:

- Jarduketaren kostuaren % 10.
- Fatxada m<sup>2</sup> bakoitzeko 6 euro.
- Fatxada m<sup>2</sup> bakoitzeko 12 euro, fatxadak zaharberritzeaz gain eraikinetako inguratzaileren isolamendu-obrak egiten direnean eta urteko eskari energetikoa oinarri hauen 2. atalean jasotako baremoetan murrizten denean.

Ateratzen den zenbatekoari gehitu ahal izango zaio erakunde publikoen eskariz fatxada egiteko beharrezkoak diren salbuespenezko kostuen % 20, gehienez, amiantoa kentzeagatik sor daitezkeen kostuak barne; hori guztia behar bezala bereizitako partidetan.

Fatxadaren luze-zabalera neurtzeko orduan kontuan hartuko dena eraikinetako fatxadaren altzaera edo proiektio bertikala izango da, eraikinaren sestratik teilatu-hegalerraino.

#### **12. Dirulaguntza emateko prozedura eratu, bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak.**

Eibarko Udaleko Hirigintza saileko zerbitzu teknikoek bideratuko dute prozedura.

Dirulaguntzaren ebazpena ematea Eibarko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Onuradunek 15 eguneko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Ulertuko da onuradunek dirulaguntza onartu dutela, baldin eta dirulaguntzari uko egiten diotela berariaz adierazten ez badute goian aipatutako epearen barruan.

#### **13. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea.**

Dirulaguntza emateko ebazpenak –arrazoiak ematerakoan, oinarri arau-emaileak eta deialdiaren baldintzak bete egiten dituela aipatuta– adierazi behar du dirulaguntza zein onuraduni ematen zaion eta ematen zaion zenbatekoa.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea, eskaera egiten den egunetik zenbatuta, hiru hilabetekoa izango da. Dirulaguntzetako Lege Orokorraren 25.5 artikularen arabera, gehieneko epearen mugaeguna iritsi eta ebazpena oraindik jakinarazteke badago, horrek interesatuei legezketasuna ematen die dirulaguntza eskabideari administrazio-isiltasunez ezetza eman zaiola ulertzeko.

#### **14. 16.- Onuradunak jaso duen dirulaguntzari eman behar dion zabalkundea.**

Kontuan hartuta dirulaguntza hauen izaera berezia –lehendik egindako jarduera batzuei ematen zaie-, onuradunari ez zaio exijituko dirulaguntzaren publizitatea egiterik.

#### **15. Onuradunak duen epe arrunta diruz lagundutako jarduera bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko.**

Dagoeneko egindako jarduera batzuei ematen zaien dirulaguntza izanik, dirulaguntza eskaerarekin batera egingo da diruz lagundu daitekeen jarduera bete izanaren justifikazioa eta jasotako diruaren aplikazioari dagokion justifikazioa, deialdi honetan ezartzen den dokumentazioa aurkeztuta.

#### **16. Egin beharreko ordainketak.**

Ez da ordainketarik aurreratuko deialdi honen dirulaguntzetan. Dirulaguntza eman ahal izateko eta onuradunaren aldeko obligazioa aitortu ahal izateko, derrigorrezko baldintza izango da justifikazioa aurkeztea eta egiaztatzea, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduko 84. artikulua ezartzen duen eran.

#### **17. Bateragarritasuna edo bateragarritasun eza helburu berberarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, izan edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutakoak, izan nazionalak, Europako Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.**

**18.** Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, izan edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutakoak, izan nazionalak, Europako Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, baldin eta duen kostutik gorakoak ez badira; alde batera utzi gabe beste dirulaguntza horien araudiak horren inguruan ezar dezakeena.

Oinarri hauen arabera emandakoarekin bateragarria den dirulaguntza lortzen duen onuradunak, ezin gezurtatuzko moduan adierazi behar dio hori dirulaguntza eman dion organoari.

#### **18- Dirulaguntzak ematerakoan ezarritako baldintzetan egon daitezkeen ez betetzeak mailakatzeko irizpideak, onuradunak, horrelakoetan, azkenean jasoko lukeen zenbatekoa zehaztu ahal izateko, edo hala balitz kasua, itzuli beharko lukeen zenbatekoa zehazteko. Irizpideok, egokitasunaren printzipioari eutsi behar diote.**

Dirulaguntza kobratu ondoren, Administrazioako zerbitzuen aldetik egiaztapen bat edo finantza-kontrol bat egin eta agerian geratuko balitz egindako gastu guztiak edo gastuen zati bat ez dela ordaindu —hartzekodunen aldetik galdagarriak diren gastuak izanik—, dirua itzultzeko agindua emango da egokitasunaren printzipioa erabilia; hartara, ordaindu gabe

geratu diren gastuen proportzio berean hartuko da itzulgarritzat emandako dirulaguntza.

### **18. Dirulaguntzen arloko arau-hauste eta zehapen administratiboak. Zehapen-prozedura.**

Gai horretan, EIBARKO UDALAREN DIRULAGUNTZETARAKO ORDENANTZA OROKORRAREN VI. TITULUAK ezarritakoari egingo zaio kasu.

### **19. Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.**

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, berrazterketa-errekurtsoa jar daiteke ebazpena eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, 2 hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, (Atotxako Justizia Epaitegian, Teresa Kalkutakoaren plaza 1).

### **20. Datu pertsonalen babesa.**

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak Hirigintzako administrazio-espeditenteen tratamenduari laguntza informatikoa ematea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela-eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua a) eta e) letretan.

**Tratamenduaren arduraduna:** Eibarko Udalaren Hirigintza saila. Telefonoa: 943 708408. hirigintza@eibar.eus

**Eskubideak:** Gogorarazten da datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, aurka egiteko edo mugatzeko eskubidea dagoela, eta Eibarko Udaleko tratamendu-arduradunari idatzizko jakinarazpena bidali behar zaiola helbide honetara: Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.